

DIRU SARRERAK

Gure enpresak prezio merke eta erosoak eskaintzen ditu bezeroek gure zerbitzua aukeratu dezaten. Auto batek kilometro bakoitzean batez beste 0,07 litro gasolina kontsumitzen du, eta hori 0,10 euro ingurukoa da. Nahiz eta kotxe elektriko batek energia gehiago erabili, haien mantentzea garestiagoa delako, hori dela eta auto guztiak berdin kobratuko dute. Zerbitzuak bi figura ditu: gidaria eta bidaiaria. Gidaria ez da taxista; bere helmugara doan bitartean, bidaia partekatzeke aukera eskaintzen du. Hori dela eta, gidariak bere gastuaren erdia jasoko du, hau da, 0,05 euro kilometroko. Bidaiariak 0,30 euro ordainduko ditu kilometro bakoitzeko, eta kopuru horretatik 0,25 euro gure enpresaren irabaziak izango dira. Modu horretan, erabilera-merke eta enpresarentzat jasagarria den ordainketa-sistema bat lortzen dugu.

Zerbitzutik lortutako diru-sarrerez gain, baditugu beste irabazi-iturri osagarri batzuk ere. Bezeroak konfiantzazko tailer batera bideratuko ditugu, bertan deskontu bereziak eskaini ahal izan ditzaten. Estrategia horrek bi abantaila nagusi ditu: alde batetik, gidariek auto-arazorik izanez gero konponbide azkar eta merkeagoa izango dute; eta bestetik, tailerrak frankizia moduan egongo direnez, bezeroek haien hirietan bertan izango dituzte. Horrek gure enpresak eskaintzen dituen abantailak nabarmendu eta bezeroen gan konfiantza sortzen lagunduko du. Hasierako inbertsioa egiteko, bazkide bakoitzak diru-ekarpen bat egingo du. Proiektuak aplikazio digital batean oinarritzen direnez, ez dugu hasieran diru-kopuru handi bat behar. Gainera, C motako autoak eta auto elektrikoak bultzatuko ditugunez, udaletxeek laguntza ekonomikoak eskainiko digu, kutsadura murrizten lagunduko dugulako.

Horrez gain, gure enpresa ezagutarazteko publizitate-kanpainak egingo ditugu: alde batetik, adinekoentzat egunkari eta irratan; eta bestetik, publiko zabalagoarentzat metroan, autobus-markesinetan eta udaletxearekin egindako akordioen bidez.

Laburbilduz, gure diru-sarrerak honela banatuko dira: zerbitzuaren bidez lortutako irabaziak izango dira sarrera nagusia; tailerrekiko akordioak eta publizitate-komisioak osagarri izango dira; udalak emandako laguntzek hasierako gastuak arintzen lagunduko dute; eta bazkideen ekarpenekin aplikazioa garatu eta publizitatea martxan jarriko da. Horrela, enpresa jasagarria eta etorkizuneko hazkunderako prest egongo da.